

■ PELOTA -GIPUZKOAKO HERRI ARTEKO TXAPELKETA

Hernanik kanporaketa zaila dauka Aiaren kontra eta biharko partiduetan egon liteke giltza

■ Etxeko hiru partiduetan irabazi beharra dago Pelota Elkarteko arduradunen hitzetan ■ Partiduetan bihar, arratsaldeko 18:00etan kiroldegian ■ Bestalde, Paleta Goman, Hernaniarren Arteko Txapelketan finala gaur da.

HERRI Arteko Pelota Txapelketan lehen kanporaketa pasa du Hernanik, baina, orain kontrario gogorragoa dauka. Iaz ere gauzak zail jarri zizkien aiarrek hernaniarrei eta aurten ere ia talde bera daukate, ona alegia.

Hiru irabazi nahi

Hernani etxeko hiru partiduetan irabaztera aterako da bihar, Aiako frontoi txikian ez baita xamurra etxeko taldeari neurria hartzea. Kadeteetan, Aizpitarte eta Gorrotxategik bi partiduetan irabazteko aukera handia dute; jubenetan, ikusi egin behar Arrieta eta Otegik zein aldarre duten, baina, Aiak Iruretagoiena pelotaria dauka, aurten oso ondo dabilena. Nagusietan, normalean Erroizenea eta Mendizabalek irabazi beharko lukete Hernanin, baina, Larrarte anaia jotzaileak dira biak eta Aiako frontoi txikian pikardi handia egin lezakete, material bizi xamarra harrapatu ez-



Hernaniko Taldeko pelotari eta entrenatzaileak.

kero behintzat.

Iazko txapeldun izanda, Hernani aterako da kanporaketa irabazteko faborito, baina, argi dago Anoetari adina erraz ez diotela irabaziko

Aiari. Bihar, arratsaldeko 18:00etatik aurrera, Hernaniko kiroldegiko frontoian.

Palako finala gaur

Gaur da Hernaniarren Arteko

Paleta Goma Txapelketako finala, 20:30etan kiroldegian. Arluziaga-Esteban/Valero-Galarza. 3-4 postua 19:30etan, Asier-Juan Mari/Oskar- Iban. □

■ BOLA

Antonio Miner 2garren Gipuzkoako Txapelketan

GIPUZKOAKO Txapelketa jokatzen berri da bi tiradara eta Ur Mia taldeko Miner aita-emeak ibili dira goiko postuetan. Antonio Miner 2garren izan da 92 brilarrekin eta bi tiradatik bat, Txuri Urdinekoa, berak irabazi du. Ibon Miner 3garren gelditu da 91 brilarrekin. Txapelduna Urrietako Joxe Angel Belaunzarán gelditu da, 96 brilarrekin. Gipuzkoako txapelketako aurren-bigarrenak Euskal Herriko txapelketa jokatzen dute; beraz, Antonio Miner Euskal Herriko sailkatu da. □

MENDIRIZ MENDI

Mendi buelta Aralarren barrena, ekainaren 8an

MENDIRIZ Mendik ibilia antolatuta du ekainaren 8rako. Buelta da: Lizarrusti-Uarrain (1343 m)-Ganbo (1402 m)-Artubi (1262 m)- Otsabio (801 m)-Altzo. Irteera goizeko 07:30etan Atsegindegitik eta bazkaria eraman behar da. Izen emateko ekainaren 5a baino lehen Mendiriz Mendin. Prezioa: bazkideek 8 euro eta bazkide ez direnek 11. □

Diru laguntzak UEUra dijoazen ikasle eta langabetuentzat

■ Udalak matrikularen kostua subentzionatuko du, pertsona bakoitzeko ikastaro bat.

UDAKO Euskal Unibertsitateak udarako eskaintzak egin ditu, Biarritz eta Iruñarako. Aurten 28 ikastaro dauka honako gaietan: antropologia, antzerkilaritza, ekonomia, eusko kultur gaiak, filosofia, fisika, GAIN, historia, hizkuntzalaritza, informatika, itzulpen gintza, kazetaritza, kimika, literatura, musika, natur zientziak, osasuna, psikologia, sexolo-

gia; soziologia, sukaldaritza talaiatik, yoga, zinemagintza eta zuzenbidea. Ikastaroak Iruñean eta Biarritzen dira eta ikastaro bat Ondarrun ere bada aurten. Biarritzen uztailaren 7tik 11ra eta Iruñean uztailaren 15etik 19ra.

Izen ematea ekainaren 29an bukatzen da eta ekainaren 14tik aurrera matrikulak % 15 gehiago balio du. Matrikulazioa internet bidez egin

liteke www.ueu.org helbidetik edo Donostian eman liteke izena Bagera Euskara Elkartean (Pedro Egaña kalea 2. Tel 943 46 71 81). Nahi izan ezker bertan jan eta lo egiteko lekua dago. Informazio gehiago nahi duenak www.ueu.org helbidean dauka.

Diru laguntzak

Hernaniko Udalak matrikularen kostua ordainduko die

ikasle eta langabetu hernaniarrei. Pertsonako ikastaro bat subentzionatuko da. Eskabidea Udaleko Euskara Zerbitzuan aurkeztu behar da ekainaren 30a bitarte. ENAren fotokopia, langabetu edo ikaste txartelaren fotokopia, matrikularen ordainagiria eta kontu korrante zenbakia aurkeztu behar dira. Informazio gehiago 943 33 70 29 telefonoan. □

Kiroldegiko

sauna ireki dute

KIROLDEGIKO sauna atzo ireki zuten, sutearen ondorioz hilabeteetan itxita egon ondoren. Emakumezkoen eta gizonezkoen saunak erabat berrituta zabaldu dituzte, suak kiskalita utzi baitziuten. Saunarako ordutegia da: astez 08:00-21:00; larunbatetan, 10:00-13:30 eta 16:00-19:30; eta igandetan, 10:00-12:30. Prezioa 2,70 euro bazkideentzat eta 6,40 bazkide ez direnentzat. □

 **Antziola-Motor**
Salmenta eta tailer zerbitzua

ford Tourneo Connect

Gogortasunaren forma berria

Antziola auzoa 12 - Hernani - Tel.: 943 55 57 72
Ordutegia: astean zehar 9-13 eta 16-20 - Larunbatean 10-13

aukera ezazu zure lanbidea Cebanc-Cdearekin

Ostalaritza eta Turismoa JATETXE-ARLOA SUKALDARITZA (EM) BIDAI AGENTZIAK OSTATU-ARLOA JATETXE ETA TABERNAKO ZERBITUAK (EM) TURISMO-INFORMAZIO ETA MERKATARITZA	Merkataritza eta Marketina NAZIOARTEKO MERKATARITZA MERKATARITZA-KUDEAKETA ETA MARKETINA MERKATARITZA (EM)
Informatika INFORMATIKA-SISTEMEN ADMINISTRAZIOA INFORMATIKA-APLIKAZIOEN GARAPENA	Administrazioa ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK A ETA D EREDUAK ADMINISTRAZIO-KUDEAKETA (EM) IDAZKARITZA

Erdi eta Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK
MERKATARITZA eta Sukaldaritza HASTAPEN PROFESIONALA www.cebank.com

BERTARAINOKO AUTOBUSA

ER-4842/2002 ER-4846/2002 Berio Pasalekua, 50 • Donostia 20.018 • Tel.: 943 316 900 • Faxa: 943 316 482 **Cebanc-Cdea** FORMAZIO PROFESIONAL • LANBIDE HEZIKETA

Askagintzak 'drogak eta sexualitatea' gaiari buruzko lehiaketa artistikoa antolatu du

■ 15-21 urte arteko gazteentzat da ■ Lehiaketa artistikoak bi modalitate ditu: idatzia eta grafikoa ■ Lanak ekainaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira.

ASKAGINTZAK antolatuta droga eta sexualitateari buruzko lehiaketa dago, 15-21 urte arteko gazteentzat. Bi lehiaketa izango dira: bata idatzia (istoriak, olerkiak, fabulak, bertsoak, ipuiak...) eta bestea grafikoa (marrazkiak, argazkiak, bideoak, komikiak...). Lanetan drogak eta sexualitateak elkarturik agertu behar dute, bakoitzak nahi duen ikuspuntua emanda.

Lehiaketa bakoitzeko lan onenek 100 euroko saria izango dute eta sari sorpresa ere bada.

Uztaila aurretik

Lanak ekainaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira: Andragoto ateneoan utzi edo *Askagintzara bidali postaz: Aristizabal 9, behea. 20.120 Hernani*. Bi karta azal aurkeztu behar dira, baten barruan


egilearen datuak joan behar dute eta bestean lana bera. Bi karta azaletan ezizena eta hiru zifrako zenbakia idatziko da.

Sariak uztailaren 4an banatuko dira arratsaldeko 17:00-etan Andragoton, eta norbaitek bere izena publiko ez egitea nahiko balu aurretik jakinarazi behar du. Sariak emango dituen tribunala Gazte Tailerreko jendez osatua dago. □

ETXERAT ELKARTEA

Jabier Zabaletaren egoera salatzeneko firma biltzea

ETXERAT Elkartek firma biltzea egingo du gaur Jabier Zabaleta Baldoren egoera salatzeneko, Gudarien plazan 19:00-etatik 21:00etara. *Baldo* isolamenduan dago otsaila ezker Curtiseko espetxean. Etxerat elkartek Gotzon Aranburu eta Joxan Pagola Beltzaren egoeraren berri ere eman du Kronikara bidalitako prentsa oharrean. Etxeraterik jakitera eman duenez Aranburuk "borrokan jarraitzen du txapeoa eginez", Valdemoro espetxeko egoera salatzen. Aranburuk hilabete egin berri du gose greban eta




Jabier Zabaleta 'Baldo'.

astebete egarri greban, baina espetxeko zuzendariak "suntzitzeko jarrerarekin jarraitzen du" Etxeraterik salatu duenez. Pagola 2001eko irailetik dago isolamenduan, Algecirasen, Euskal Herritik 1.234 kilometrotara.

Kontzentrazioa gaur

Bestalde, hileroko kontzentrazioa deitu du gaur Etxeraterik, Euskal Presoak Euskal Herrira ekartzea eskatzeko. Etxeraterik gogoratu arazi nahi du 21 preso hernaniar daudela Euskal Herritik kanpo espetxeraturatuta. Gaur, 20:00etan plazan. □



Juanrra Jodar, igo berri duena baino mendi txikixeago batean.

Juanrra Jodarrek Himlung Himal mendia igo du Himalayan

■ Himlung Himal mendiak 7.126 metro ditu eta zati batzuetan 45°ko aldapak eta resalteak.

JUANRRA Jodar mendizale hernaniarrak Himlung Himal mendia igo du egunotan, noiz seguru ez badakigu ere. Kronikari jakinarazi diotenez etxera deitu du mendia igo dutela esateko, baina, komunikazioa oso zaila da altura horietatik eta gehiago ez dakigu.

Himalayara 8 laguneko

espedizioa joan zen apirila bukaeran, 7.126 metroko mendizarra igotzeko asmotan. Igoera Nepal aldetik egin dute alpino erara. Alturaz gain bere zailtasunak baditu Himlung Himal mendiak: resalteak, 45°ko malkarrak eta tontorra aurretik egi-egitik egin beharreko igoera. □

† AGUSTIN SAN SEBASTIAN ZUBILLAGA

JAUNA
"Akan"

Herenegun hil zen, 73 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkazioa hartuta.

-Goian bego-


Emaztea: Maria Ugalde; alaba: Ana Rosa; anai-arrebak: Conchita (+), Jose Mari (+) eta Pepita Zuriarrain, Paquita, Benito (+) eta Pilar Agirre (+); Jesus Ugalde eta Maria Urruzola, Valentina eta Patxi Iriondo, Ramon eta Mari Carmen Retegi; izeba: Juanita Azpiolea (Ramon Ugalderen alarguna); ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizute eta arren etor zaitezte GAUR, OSTIRALA, arratsaldeko ZAZPIRETAN, (HERNANIKO) JUAN BATAIATZAILEA parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2003ko maiatzaren 30ean

Helbidea: Karmelo Labaka, 5 - 3.A

OHARRA: Gorputza Orbegozko Ehorzketa Tanatorio berrian (kiroldegi ondoan) egongo da.



† JOSE ORTIZ IMAZ

JAUNA

Atzo hil zen, 74 urte zituela.

-Goian bego-

Arrantza zendun afizioa

eta zure bizi poza

Arranbideko errio ertza

ez zen zuretzat arrotza

nahiz gaur negarrez somatzen degun

Urumeako ur hotsa

zuk gehien maite zendun lekuan

gelditu zaizu bihotza.

ZURE ETXEOAK

Hiletak, BIHAR, LARUNBATA, arratsaldeko ZAZPIRETAN, Florida auzoko JOSE LANGILEA parroki elizan izango dira.

Hernanin, 2003ko maiatzaren 30ean



Ezkerro

Fruituak

Bertako generoa eta produktu exotikoak

Garbi eta ondo jan nahi duzula? Ezkerro Frutak-en bertako baserritarren produktuak daukazu aukera-aukeran. Bertako tomate, letxu, ilar... **garaian garaiko generoa** dena. Berdura eta fruta berriak eta bereziak probatu eta ezagutu nahi dituzula? Ezkerro Frutak-en badituzu **jateko loreak, alfalfa eta soja germinatua, franbuesa, jengibre, arandanoak, prejitzekeo platanoak...** Eta gainera, aukera ederra gainontzeko fruta eta berduren ere: genero onena dagoen lekutik ekarria. Ezkeron, **berdura preparatuta** ere jartzen dugu. **Taberna eta jatetxeei zerbitzu berezia.**

EZKERRO FRUTAK - Antziola kalea 5 - HERNANI - Tel.: 943 33 32 75

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Etxebeste Elkano 2 ☎ 943 552087
- ▶ Gaez: Etxebeste Elkano 2 ☎ 943 552087

IRAGARKI MERKEAK

Martxan dagoen okindegia alokatzen da Hernanin. Salmentak frogatu leizke. Interesatuek deitu: 657 79 29 48